

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

- ✓ Ekonomiak hazten jarraitzen du
- ✓ Prezioek gora eta gora jarraitzen dute
- ✓ 2006ko lan-erreformak urte bat bete du: porrota, berriro ere
- ✓ Enpleguaren erregulazioa areagotu egin da
- ✓ Lan-istripuak: onartu ezinezko datuak
- ✓ Enpresa-mozkinen pisua hasi, lan-kontuena amildu

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATUA	2007	12 HILE LEHEN.	2006 BUK.
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (16-65 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA)					
JARDUERA TASA	%	07 II	73,7	73,9	74,0
" 15-EBn	%	07 I	71,5	71,3	71,2
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	07 II	1.276.500	1.263.300	1.273.574
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	07 II	1.034.300	1.000.500	1.023.200
ALDI BATERAKO TASA	%	07 II	28,3	28,7	29,2
" 15-EBn	%	07 I	14,3	14,1	14,5
BIZTANLERIA LANGABETUA	KOPURUA	07 II	80.000	91.600	84.900
LANGABEZI TASA	%	07 II	5,9	6,8	6,2
" 15-EBn	%	07 I	7,6	8,4	8,2
GAZTEEN LANGABEZI-TASA	%	07 II	18,1	19,1	19,1
" 15-EBn	%	07 I	15,5	16,6	16,6
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA	%	07 II	7,7	8,2	8,8
" 15-EBn	%	07 I	8,3	9,2	9,1
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	07 URT-ABU	729.105	690.503	1.094.469
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	07 URT-ABU	68.492	60.281	107.139
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	07 URT-API	205	167	392
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	07 URT-API	3.728	3.530	6.748
LAN ISTRIPUAK					
BAJADUN LANGILEAK	KOPURUA	07 URT-EKA	31.128	34.828	65.496
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	07 URT-EKA	275	322	618
ESKAINZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	07 URT-UZT	3,7	4,3	4,1
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	07 URT-MAR	2,0	3,9	4,5
BPGa EAEn	% ALD.	07 II	4,1	4,2	4,1
BPGa NAFARROAn	% ALD.	07 II	4,0	3,8	4,1
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	07 II	3,9	4,0	4,1
BPGa 15-EBn	% ALD.	07 II	2,6	3,0	3,3
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	07 ABU	2,2	3,8	2,7
" 27-EBn	%	07 ABU	1,9	2,4	2,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.					
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE), Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, EIN.					
2007/09/19an eguneraturiko informazioarekin			107. zbk. Egoeraren Azterketa 2007ko Urria		



Aurkibidea

SARRERA	3
GIZARTE ETA EKONOMIA EGOERAREN AZTERKETA	4
1. Ekonomiak hazten jarraitzen du ..	4
2. Prezioek gora eta gora jarraitzen dute.....	5
3. Zerbitzuak: sektore nagusia	5
4. 2006ko lan-erreformak urte bat bete du: porrota, berriro ere	6
5. Enpleguaren erregulazioa areagotu egin da	6
6. Lan-istripuak: onartu ezinezko datuak	7
PUNTAKO GAIA	8
Enpresa-mozkinen pisua hazten direlarik, lan kostuak amildu egiten dira	8

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEE	Nafarroako Estatistika Erakundea
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

EGOERAREN A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren Azterketaren zenbaki honetan enplegu eta ekonomiak urteko lehen seihilekoan izandako bilakaera aztertzen dugu, interes tipoen igoera eta lan erreformaren porrotari arreta berezia ezarriz. Hileko puntako gaian Euskal Autonomi Erkidegoko kontu industrialak aztertzen ditugu, enpresen mozkinen pisua gehitu eta lan kostuena murriztu dela erakusten dutenak.


** Txosten hau 2007ko irailaren 19an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Gizarte eta ekonomia egoeraren azterketa

1. Ekonomiak hazten jarraitzen du

Hego Euskal Herrian (HEH) sortutako aberastasuak datu positiboak islatzen ditu, oraindik ere. Zehazki, Nafarroako **Barne Produktu Gordinak** (BPG) %4ko hazkundera izan du 2007ko bigarren hiruhilekoan, eta horren oso antzekoak izan dira EAeko hazkundera (%4,1) eta Espainiako Estatukoa (%3,9). Gehikuntza horiek Europan jazotakoak baino handiagoak dira, 15-EBko BPGa %2,6koa izan baita, hiruhileko horretan.

BPGak HIRUHILEKOZ HIRUHILEKO IZANDAKO GEHIKUNTZAK (URTE ARTEKO %). 2006-2007



Iturriak: Eustat, NEI, INE, Eurostat.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) **Produktzio Industrialaren Indizea** %3,7 hazi da aurtengo urtarriletik uztaile bitarte, hau da, 2006ko aldi berean hazi zena (%4,1) baino pixka bat gutxiago. Halaber, Nafarroako Jarduera Industrialaren Indizeak %2ko hazkundera izan du 2007ko urtarriletik martxora artean, hori ere 2006koa (%4,5) baino txikiagoa.

Ekonomiaren hazkundera jazo den hamalaugarren urtea da oraingoa. Ziurgabetasuneko une honetan, horrelako aldietan ohi bezala, agintari politiko gehienek errezeta neoliberalen aldeko apustua egiten jarraitzen dute. Ez dugu etorkizun-igarlearena egin nahi, baina gauza batzuk oso argi ikusten direlakoan gaude, hala ere.

- Europako Banku Zentrala gauzatzen ari den politika interes-tasa altuetan (inflazio-tasaren bikoitza) oinarritzen da; horrek arriskuan jartzen du ekonomiaren hazkundera. Europa eratzeko erabiltzen ari den ereduaren (Itunean adostutakoaren) eraginez, politika monetarioaren helburu bakarra inflazioa kontrolatzea da, neurritz kanpoko interes-tasak ezarriz bada ere. Ez da bidezkoa Europa eratzeko eredu horrekin ados zaudela esatea, eta eredu horrekin bat datozen politikak kritikatzeko.
- Interes-tasen igoeran oinarrituriko politikak euskal familia asko itotzen ari dira, hipoteka-kredituak etengabe hazten ari direlako (ikus 105. Egoeraren Azterketa). Logikaz, familia askorentzat oraingo egoera tamalgarria da, eta beste gastu edo inbertsiorik egitea galarratzen die. Interes-tasen goranzko joerak berdin segituz gero, oso ondorio larriak ekar ditzake.
- Aurreko urteetan, finantza-erakundeek ez ordaintze gutxi jasan dituzte, eta gero eta kreditu gehiago onartu izan dira. Aurreikus daitekeenaren arabera, egoera horrek ez du luzaroan iraungo. Ez dago batere argi Aurrezki Kutxak eta Bankuak errealitate berrirako prest daudenez. Horregatik, diru-agintariak diru-kopuru handiak injektatzen ari dira merkatuan, talde ekonomiko handiei laguntzeko, oraingoa ere, eta jendearen premiak ahazturik.
- Euskal Herrian eta Europan gertatzen ari denak ez du zerikusi handirik Estatu Batuetako hipoteka-krisiarekin; hala ere, krisialdi horrek erakusten digunez, etxebizitzaren prezioa jaitsi egin daiteke. Hemengo prezioak ikusita, hori jazotzea ez litzateke albiste txarra.

Ekonomiaren hazkunderari buruz, aintzat hartu beharreko beste bi alderdi daude:

1. Batetik, hazkunderaren **banaketa** aipatu behar da. Ekonomiaren hazkunderaren banaketak areagotu egiten du enpresarien errenten eta lan-errenten arteko jautzia. Zifra makroekonomiko bikainak harro erakusteko ez du ezertarako balio, mozkin horiek gutxi batzuen artean banatzen ari badira. Beraz, ondo hausnartu behar da zer den garrantzi-



tsuagoa, hazkunde handiagoa lortzea ala banaketa hobea lortzeko borrokatzea.

- Bestetik, ekonomiaren hazkundearen **muga** eta ondorioak ere hausnartu behar dira. Hau da, ondo pentsatu behar da noraino hazi behar dugun, hazkundera baliabide naturalen pentzudan egiten dela, gas-isurpenak eragiten dituela, eta gure bizi-kalitatean zuzeneko eragina duten ondorioak dakartzala kontuan hartuta.

2. Prezioek gora eta gora jarraitzen dute

Espainiako Estatuko urte arteko **KPIa** %2,2koa izan da abuztuan, EB-27koa (%1,9) baino zerbait altuago.

Prezioen igoera ez zaio bakarrik nazioarteko egoerari egotzi behar, beste arrazoi batzuk ere baditu eta. Arrazoi horietako bat enpresarien mozkinen hazkunde handia da.

Hortaz, prezioen igoeraren kontra borrokatze-formula ezin da soldatak izoztea izan; aitzitik, soldatek orain baino gehiago hazi behar dute, lan-errentei aberastasunean dagokien partaidetza berreskuratzeko eta eusteko.

Premiazko elikagaien prezioak nabarmenki garestitzen ari dira, eta, adituek diotenez, joera horrek berdin jarraituko du, edo larriagotu egingo da, aurrerantzean.

Premiazko elikagaien prezioen igoerari buruz, espekulazioa nabarmendu behar da. Agintariak esaten dutenaren kontra, prezioen igoerak ez du zerikusirik nekazaritzarako erregaien hedadurarekin (argi utzi behar da, gainera, horiek ezin direla energia-ekoizpen garbitzat hartu); igoeraren benetako eragileak, aitzitik, bitartekariak dira, euren mozkinak kontsumitzaileen kontura ugaritzea erabaki dute eta.


Zerealen ekoizpena kontzentrazio-prozesua jasaten ari da mundu-mailan, eta oso enpresa gutxi dute prezioak ezartzeko ahalmena. Baina zerealen prezioaren igoerak ez lituzke zertan eragin ogiaren edo esnearen prezioan izan diren gehikuntzak.

3. Zerbitzuak: sektore nagusia

Dagoeneko, kalean daude 2007ko bigarren hiruhilekoko enpleguari eta langabeziari buruzko datuak. Lanean dabilen 1.276.500 lagunetatik 803.200ek zerbitzuen sektorean dihardute. Sektore horrek izan ditu langile gehien (guztizkoaren %62,9), bere atzetik industria (%24,7), eraikuntza (%10,3) eta nekazaritza (25.700 lagun, hots, %2,0) dituelarik. Hortaz, zerbitzuetan diharduten pertsonen kopuru handiak enpleguaren eragile bihurtu dute sektore hori.

Urteko lehenengo sei hilabeteetan, 3.000 lanpostu sortu dira. Gehikuntza handiena eraikuntzan jazo da (10.800), eta hurrengo handiena, industrian (1.300); zerbitzuetan, ordea, 8.300 lanpostu galdu dira, eta nekazaritzan, berriz, 800.

LANEAN DABILEN BIZTANLERIA, SEKTOREZ SEKTORE (GUZTIZKOAREN %). HEH, 2007ko II. HIRUHILEKOA



Iturria: INE

Bestalde, lana duten edo lan bila dabilen 16 eta 65 urte bitarteko pertsonen portzentajea (**jarduera-tasa**) 0,3 puntu gutxitu da 2007ko lehenengo bi hiruhilekoetan, %73,7koa izanik. Jarduera-tasa hori 15-EBkoa (%71,5) baino 2,2 puntu altuagoa da. Gizonezkoen jarduera-tasa %83koa da, eta emakumezkoena, aldiz, %64,2ra jaitsi da.

Soldatako biztanleriari dagokionez, gehikuntza txikia izan da, soldatakoen kopurua 2006aren amaieran 1.023.200 lagunekoa izate-tatik 1.034.300era igaro da eta.

HEHko **langabezia-tasa** pixka bat jaitsi da aurtengoaren lehenengo erdian, %5,9ra heldu baita, 2006aren amaierako %6,2tik. Langabezia-tasa 15-EBkoa (%7,6) baino baxuagoa da. Gazteen langabezia-tasari buruzko datuak, ordea, oso deigarriak dira; izan ere, goian esan dugunaz bestela, HEHko gazteen langabezia-tasa (%18,1) 15-EBkoa (%15,5) baino handiagoa da. Egoera hori aspaldidanik ari da errepikatzen.

Langabezia-tasan, **generoko diferentziak** agerikoak dira: gizonen langabezia-tasa %4,5koa delarik, emakumeena %7,7an dago. Datu horri emakumeen kolektiboak jasaten duen behin-behinekotasun handiagoa gehitzen badiogu, argi geratzen da emakumeek lan arloan nozitzen duten bereizkeria.

4. 2006ko lan-erreformak urte bat bete du: porrota, berriro ere

Hazkundera eta enplegua hobetzeko 5/2006 Errege Lege-Dekretua 2006ko ekainaren 14an argitaratu zen BOEan. CCOO eta UGT sindikatuekin adostutako Lege-Dekretu hori justifikatzeko, behin-behinekotasunari aurre egin nahi ziola esan zuten, orduan. Indarrean hasi zenetik urtebete iraganda, ordea, datuek agerian uzten dute erreforma horren eraginkortasunik eza: 2006ko lehenengo seihilekoko behin-behinekotasun tasa %28,7koa izan zen, alegia, 2007ko lehenengo seihilekokoaren (%28,3) oso antzekoa.

Zehazki, 2007ko urtarril eta abuztu artean sinatutako kontratuetatik %90,6 aldi baterakoak izan dira. Aipatutako aldi horretan, 729.105 lan-kontratu sinatu dira, hau da, 2006ko epealdi berean baino 38.602 gehiago; baina sinatutako kontratu guztietatik 68.492 bakarrik izan dira mugagabeak.

Zifra horien atzean, **kontratazioan egiten den iruzur handia** dago ezkutuan, legezko arrazoirik gabe egiten baitira aldi baterako kontratuak. Datu hori aspaldion urtero errepikatu den arren, ez da arazoa zuzentzeko neurri eraginkorrik hartu, eta arau bidez xedatu diren azken neurriek ez dute arazoa arintzen lagundu. Aitzitik, neurri horiek txartu egin dute bai aldi baterako lanaren, bai lan mugagabearen

kalitatea, malgutasuna areagotu egin dute eta. Era berean, enpresei eman zaizkien diru-laguntzak mozkinak gizentzeko erabili dira.

Zalantzarik gabe, lanaren **behin-behinekotasuna** da Europatik gehien aldentzen gaituen aldagaia. Zehaztasunez adierazteko, HEHko behin-behinekotasun tasa (%28,3) Europakoa (%14,3) halako bi da. Behin-behinekotasuna ugazaberiak aberastasuna pilatzeko darabilen prozesuaren atala da, prozesu horrek lotura handia baitu sinatzen diren kontratu motekin.

Behin-behinekotasuna generoaren arabera aztertzean ikus daitekeenez, emakumeen behin-behinekotasuna gizonena baino askoz handiagoa da (%33,8koa eta %23,8koa, hurrenez hurren), eta bereziki nabarmengarria da 16 eta 24 urte bitarteko langileen kolektiboan, %65,7an dago eta.

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASAK.
HEH, 2007ko II. HIRUHILEKOA;
15-EB, 2007ko I. HIRUHILEKOA

	OROKORRA	GIZONENA	EMAKUMEENA
HEH	%28,3	%23,8	%33,8
15-EB	%14,3	%13,6	%15,1
DIFERENTZIA	14,0	10,2	18,7

Iturriak: Eurostat, INE

Ondorioz, 2006ko Lan Erreformak ere porrota besterik ez du ekarri. Bere garaian Gobernuak, CCOOk eta UGTk egindako akordioak oihartzun handia izan zuen komunikabideetan, eta behin-behinekotasunari aurre egiteko mirarizko formula bailitzan aurkeztu zen. Erreforma onartu zenetik urtebetara, ordea, benetako ondorioak estaltzen saiatzen ari dira, balantzea egitean.

5. Enpleguaren erregulazioa areagotu egin da

Enpresarien mozkinak behin eta berriz markak hautsi badituzte ere, enpleguaren erregulazioa areagotu egin da. Zehazki, urtarriletik apirilera bitarte, enplegua erregulatzeko 205 fitxa baimendu dira, aurreko urteko aldi berean baimendutako 167 fitxen aldean. Fitxa horien ondorioz **kaltetutako langileak**, berriz, 3.728 izan dira, 2006koak 3.530 izanik.



6. Lan-istripuak: onartu ezinezko datuak

2007ko lehenengo seihilekoan, baja eragin duten 31.128 **lan-istripu** gertatu dira. Istripu larriak eta hildakoak eragin dituztenak 275 izan dira. Zifra horiek 2006koak (34.828 eta 322, ondoz ondo) baino txikixeagoak dira. HEHn jazotako lan-istripuak 15-EBn gertatutakoak baino askoz gehiago izan dira, ordea, horien kopurua bikoiztu egin baitute ia.

Lan-istripuen kopurua nolabait murriztu dela egia den arren, aipatutako kopuruak onartezi-

nak dira. Hala ere, agintarien ustez, datuok ez dira benetako neurri eraginkorrak hartzeko bezain larriak, dirudienez.

Fenomeno kezkarri horren arrazoi nagusiak behin-behinekotasun eta azpikontratazio-tasa altuak, lan-eritmo bizkorregiak, segurtasun-neurri eskasak, laneko segurtasunean eta osasunean egiten den inbertsio hutsala, eta Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen urratze sistematikoa dira. Hitz gutxitan esanda, enpresarien mozkinak langileen segurtasunaren eta osasunaren aurretik jartzen dituzte agintariek.


Enpresa-mozkinen pisua hazten delarik, lan-kostuak amildu egiten dira

Eustatek EAEko industria sektoreko enpresen 2005ko Kontuak argitaratu ditu (azken informazioa urte horretakoa da). Hona hemen azterlan horren ondorioz aipagarrienak:

2005ko EKITALDIA

1. 2005an, EAEko industria sektoreko enpresen mozkinak %17,3 hazi ziren; enpresa berorien guztizko langile-gastuak, berriz, %3,4 gehitu ziren.


LANGILE-GASTUEN ETA IRABAZIEN HAZKUNDEA (% ALDAKETA). EAEko INDUSTRIA. 2005



Iturria: Industriaren Kontuak

2. Euskal industriaren irabazi gordinak salmenten balio osoan duten pisua 2004ko %7,8tik %8,3ra igo zen 2005an.

IRABAZIEN ETA LANGILE-GASTUEN PISUA (SALMENTEN %). EAEko INDUSTRIA. 2004-2005




Iturria: Industriaren Kontuak

3. Euskal industriako soldata-kostuei salmenten balio osoan dagokien pisua 2004an %17,2koa izatetik %16,2ra igaro zen 2005an.

1994 ETA 2005 BITARTEKO ALDIA

4. EAEko industriaren irabaziek %235,9ko hazkundera izan dute, langile-gastuen gehikuntzaren hirukoitza ia, gastuok %75,8 gehitu dira eta.

LANGILE-GASTUEN ETA IRABAZIEN BILAKAERA (% ALDAKETA). EAEko INDUSTRIA. 1994-2005




Iturria: Industriaren Kontuak

5. Soldata-kostuek salmenten balioan duten pisua %21,9koa zen 1994an, eta %16,2koa 2005an. Bestalde, enpresa-irabazien pisua 1994an salmenten balioaren %5,5 izatetik %8,3ra hazi zen 2005an.




SOLDATA-GASTUEI ETA IRABAZIEI SALMENTETAN DAGOKIEN PISUA. EAEko INDUSTRIA (SALMENTEN %). 1994-2005



Iturria: Industriaren Kontuak


6. Industrian lanean dabilen pertsona bakoitzeko lan-kostua KPIaren igoera baino 2,2 puntu gutxiago hazi da.

LANEAN DABILEN PERTSONA BAKOITZEKO KOSTUA ETA KPIA (% ALDAKETA). EAEko INDUSTRIA. 1994-2005



Iturria: Industriaren Kontuak

PERTSONAKO LAN-KOSTUEN ETA PREZIOEN ALDAKUNTZA (%). EAEko INDUSTRIA. 1994-2005



Iturria: Industriaren Kontuak

ONDORIOZTAPENAK

2005. urtean mozkinak bere maila gorenera iritsi dira. Bestaldetik langile gastuak bere maila baxuenean kokatu dira.

Errentaren banaketak oso bilakaera desorekatua du industriako enpresetan. Enpresa-mozkinen pisua hazten delarik, lan-kostuak amildu egiten dira. Inflazioa lanean dabilen pertsona bakoitzeko lan-kostuak baino gehiago hazten da.

Ugazabak pozik egon daitezke, bai. Behin-behinekotasunaren hedapenaren eta ondoz ondo egindako lan-erreformen eraginez, enpresa-mozkinen marka guztiak hausteko aprobetxatzen ari dira abagune ekonomiko onuragarria, langileen bizi- eta lan-baldintza okerragoen lepotik.

Enpresetan marjina handia dago soldatak hobetzeko, lanaldia murrizteko eta behin-behinekotasunaren aurka borrokatzeko. Neurri horien kostu ekonomikoak ez du enpresen bideragarritasuna kolokan jartzen. Neurriok aplikatuz gero, mozkinak gaur baino gutxiago hazi edo txikiagoak lirateke, besterik ez.

Enpresetan, langileen interesak ahalik eta enpresa-mozkin handienak lortu nahiaren gaitetik jartzeko aldarrikapenaren aldeko indar-korrelazioa hobetzea da sindikatuen erronka.



Oharrak:

A series of 20 horizontal dotted lines for writing.